

Koiuntura di-da batean

2019ko urtarrila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
 2. Afiliazioa
 3. Langabezia erregistratua
 4. Inflazioa
 5. Konfiantza
 6. Ekonomia ingurunea
- Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,3 haziko da 2019an.

Ekonomiaren hiru sektore nagusietan hautemango da motelaldia.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa berriro areagotu da.

Laugarren urtez jarraian hazkunde tasa %2,0aren inguruan kokatu da.

3. Abenduan 120.000 langabe baino gutxiago zeuden erregistratuta.

Bereziki esanguratsua da langabeziaren beherakada eraikuntzan.

4. KPIak beherakada handia izan zuen urte amaieran.

Inflazioaren apaltzearen atzean dagoen arrazoi nagusia petrolioaren merkatzea da.

5. EAEko familien konfiantza maila finkatu egin da.

Lehenengo aldiz, nolabaiteko baikortasuna nabaritu da aurrezteko ahalmenean.

6. 2019rako hazkunde aurreikuspenen bilakaera.

Perspektiba egonkorrak AEBen kasuan eta beheranzkoak, ordea, Eurogunearenean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Financiación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK



EAEko ekonomia %2,3 haziko da 2019an

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa




Koiunturaz argitaratu den azken informazioa kontuan hartuta, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenak ia ez dira ezer aldatu aurrekoen aldean eta ekonomiak aurtien moteltze arineko prozesu bat biziko delako ideari eusten zaio oraindik. Izan ere, BPGaren batez besteko gehikuntza tasa %2,3an kokatuko da, hots, 2018rako espero dena baino puntu erdi bat beherago. Aurreikuspen horren arabera, apaltzeko joera aurtengo bigarren seihilekoan galgatuko da, %2,0aren zertxobait gainera kokatuta. Eskariaren osagaien arabera, azken kontsumoaren erritmoak bere horretan jarraituko duela espero da, %2,1aren inguruko aldakuntza tasa egonkorrak jasoz. Aitzitik, inbertsioak azken epealdietan lortu dituen erritmo biziak leunduko ditu. Kanpo ingurunean sortu den ziurgabetasuna oztupoa izango da aldagai horren bilakaera hobea lortzeko.

Azken kontsumoa
Urte arteko aldakuntza tasaKapital eraketa gordina
Urte arteko aldakuntza tasa


Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Bizitasunaren galera EAeko ekonomiaren hiru sektore nagusietan hautemango da, baina bereziki eraikuntzan, 2019an ez baitu berrituko 2018ko emaitza bikaina. Beste aldetik, bai industriak bai zerbitzuek puntu erdi baten inguruan gutxituko dute hazkunde tasa 2018ko datuaren aldean.

Ekoizpenaren erritmo galera horrek eragina izango du enplegu garbiaren sorreran, 2018koan %2,0 haztetik aurtengo %1,4ra igaroko baita, itxurazko produktibitatearen irabazia puntu baten inguruan utziz. Langabezia tasa oso gutxi beheratuko da, enplegua bilatzen duten lagun berriak agertuko direlako, hutsik dauden lanpostuen gorakadak erakarrita.

Enplegua
Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia tasa
Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Gizarte Segurantzako afiliazioa berriro areagotu da

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Aurreko hiru urteetan bezala, 2018koa ere urte ona izan zen EAEko enpleguarentzat. Gizarte Segurantzak argitaratu duen informazioaren arabera, afiliazioaren igoera erritmoa, urteko batez bestekoa, %2,1ean kokatu zen, aurreko datuetatik oso hurbil. Horri esker, urte amaieran 962.000 pertsona afiliatu zeuden, hots, 2008an lortu zen maximoa baino 20.000 gutxiago, baina 2013ko udako minimoa baino 100.000 gehiago. Iazko ekitaldian, generoen araberako banaketa antzekoa izan zen, 9.700 emakume gehiago eta 9.450 gizon gehiago afiliatu zirelako. Hala ere, oraindik gizon gehiago dago sisteman izena emanda. Zehazkiago, emakumeak guztizkoaren %47,3 dira.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatu den afiliazioaren hobekuntza orokorra izan zen ekoizpen sektore guztietan, haien artean eraikuntza nabarmendu zelarik, %3,6ko urte arteko tasa batekin, nahiz eta arlo horren balio absolutuak oso urrun dauden krisiaren aurreko zenbakietatik. Beste aldetik, bai industriak (%1,8) bai zerbitzuek (%2,1) tasa apalagoak jaso zituzten, lehen kasuan beheranzko joera erakutsiz azken hiruhilekoan. Zerbitzuek %2,0an egonkortu zuten gehikuntza tasa azken hilekoetan, osasuna eta gizarte zerbitzuetako afiliatuei eta hezkuntza alorreko kotizatzaileei esker, baina baita arlo pribatuko jarduera batzuen bultzadari esker ere, hala nola garraioarena eta lanbide jarduerena.


Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden lagunak

	2017ko abendua	2018ko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	943.987	962.104	18.117
Industria manufakturagileak	173.423	175.187	1.764
Merkataritza	139.178	139.289	111
Osasun arloko jarduerak	93.876	97.170	3.294
Hezkuntza	71.306	73.837	2.531
Ostalaritza	65.004	66.385	1.381
Administrazio jarduerak	65.548	66.795	1.247
Lanbide jarduerak	54.408	56.081	1.673
Eraikuntza	53.958	56.084	2.126
Administrazio publikoa	47.179	48.159	980
Garraioa	40.658	42.089	1.431
Etxeko langileak	30.911	30.508	-403
Bestelako zerbitzuak	28.807	28.740	-67
Informazioa eta komunikazioa	21.650	22.769	1.119
Finantza jarduerak	18.050	18.027	-23
Jarduera artistikoak	15.946	16.618	672
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.823	11.980	157
Ur horniketa	5.887	5.998	111
Higiezin jarduerak	3.878	3.985	107
Energia horniketa	1.879	1.794	-85
Erauzketa industriak	571	552	-19
Lurraldez kanpoko erakundeak	49	56	7

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Abenduan 120.000 langabe baino gutxiago zeuden erregistratuta

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa





2018an, Lanbideko bulegoetan langabe gisa izena emanda zeuden lagunen kopurua erritmo garrantzitsu batean murriztu zen, baina aurreko bi urteetan baino zertxobait gutxiagoan. Hain zuzen ere, 2016ko jaitsiera tasa %8,8 izan zen eta 2017koa, berriz, %8,6, 2018koa %7,4an geratu zen bitartean. Portzentaje hori urtean zehar moteldu zen, abenduan %6,2ko urte artekoa jaso arte. Hileko horretan, 120.000 langabe baino gutxiago kontabilizatu ziren, lehenengo aldiz 2009ko erdialdetik. Langabeziaren murrizketa bizixeagoa izan zen gizonen taldean aldakuntza ehunekotan aztertzen denean (%-6,6 eta %-5,9, hurrenez hurren), baina emakumeen aldekoa zenbaki absolutuei begiratzen zaienean (4.154 emakume langabe gutxiago eta 3.719 gizon gutxiago).

Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak


Oro har, kolektibo guztiek langabeen kopurua murriztu zuten, salbuespen bakarra 25 urtetik beherakoena delarik. Talde horretan, gorakada nabarmena gertatu zen urtearen zati handi batean, nahiz eta bere tamaina txikiak -7.000 langabe inguru dira, adin tarte horretan 180.000 gazte baino gehiago diren bitartean- gorabehera handiak izateko aukera handitzen du. Beste aldetik, atzerritarren kolektiboak berriro beheratu zuten langabezia %7,0 baino gehiago. Sektoreen analisiak erakusten du langabezia oso nabarmen jaitsi zela eraikuntzan lan egin zuten pertsonen artean (%-13,7), zerbitzuetan eta industrian (%-5,9 eta %-5,2, hurrenez hurren) lan egin zutenena baino askoz ere gehiago. Ehuneko horietatik urrun dago lehen enplegua bilatzen ari den taldea, langabezia %2,4 bakarrik murriztu zuelako.

Langabeak


	2017ko abendua	2018ko abendua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	127.547	119.674	-7.873
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	20.639	19.792	-847
Bizkaia	72.936	68.204	-4.732
Gipuzkoa	33.972	31.678	-2.294
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	56.740	53.021	-3.719
Emakumeak	70.807	66.653	-4.154
25 urtetik beherakoak	7.073	7.439	+366
25 urte baino gehiago dutenak	120.474	112.235	-8.239
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.990	2.724	-266
Industria	15.907	15.073	-834
Erakuntza	10.503	9.060	-1.443
Zerbitzuak	83.631	78.655	-4.976
Lehenago lan egin dutenak	113.031	105.512	-7.519
Lehenago lan egin ez dutenak	14.516	14.162	-354
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.734	19.090	-1.644

INFLAZIOA

KPIak beherakada handia izan zuen urte amaieran

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Azaroan, EAeko inflazioa %1,5era gutxitu zen, sei hilekoz %2,0aren gainetik egon ondoren. Apaltze horren arrazoia argindarraren eta erregaien merkatzea da. Azken kasu horretan, petrolioaren upelaren salneurria berriro merkatu zen abenduan. Beraz, hileko horretan KPI indizea berriro jaitsiko dela aurreikusten da. Hain zuzen ere, horixe da INEk Estatu osorako argitaratu duen aurrerapenak iragartzen duena, abenduko tasa azarokoa baino puntu erdi bat beherago kokatu duenean.

KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko azaroa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,5	1,5
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,5	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	4,3	0,8
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	2,0	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	5,9	0,6


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Hain zuzen ere, petrolio gordinaren merkatzearen ondorioz, urte arteko aldakuntza tasa aurreko datuaren aldean gehien gutxitu zuen taldea garraioarena izan zen, %2,9ko emaitza jasota, hots, urrikoa baino bi puntu eta hiru hamarren txikiagoa. Orobat, etxebizitza taldearen jaitsiera, puntu bat eta hiru hamarrenetakoa izan zena, azpimarratu behar da, argindarraren eta berogailuetarako gasolioaren merkatzeak lagunduta, iazko epe berean garestitu ziren bitartean. Petrolioak baldintzatuta daude bi talde horietaz gain, aisialdia eta kultura zein hotelak, kafetegiak eta jatetxeak taldeek ere aurrekoak baino urte arteko tasa txikiagoak jaso zituzten. Bi talde horiek lotuta daude turismoari eta, hurrenez hurren, bi eta bost hamarretan beheratu zituzten aldakuntza tasak, turismo paketeen bilakaeragatik eta alojamenduko salneurrien jaitsierari esker.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko azaroa


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,5	1,7	2,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,9	1,4	1,3
Edari alkoholduak eta tabakoa	2,3	2,0	4,2
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,9	0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,9	2,8	3,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,7	0,3	0,5
Medikuntza	0,2	0,8	0,9
Garraioa	2,9	3,3	4,0
Komunikazioak	2,2	2,0	-1,9
Aisia eta kultura	-0,7	-0,5	0,2
Hezkuntza	0,8	1,0	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	2,1	2,1	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,6	1,2	1,7

Iturria: INE eta Eurostat.

KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA


EAEko familien konfiantza maila finkatu egin da

Familién konfiantza indizea




Laboral kutxak familién konfiantza indizearen datuak, 2018ko laugarren hiruhilekoari dagozkionak, argitaratu berri ditu. Adierazle horren arabera, indizea +3an kokatu zen, urteko lau hiruhilekoetako daturik onena baita, eta indizearen susperraldia finkatu duena. Urteko balantzeak (+1) 2017koa berdintzen duen arren, 2018ko ezaugarria familién konfiantzaren egonkortasuna da, ia urte osoan zehar balio positibotan kokatu baita, nahiz eta txikiak izan. Indizearen osagaien artean, azken urte eta erdian ekonomia orokorrean konfiantza galdu dela hautematen da. Aitzitik, familiaren ekonomian duten konfiantza, oraindik balio negatibotan egon arren, eremu neutrorra hurbiltzen ari da.

Ekonomia orokorra




Familién ekonomia




Iturria: Laboral kutxa.

Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko ahalmena



EAEko familiek langabeziaren bilakaeraz duten iritzia baikorra da oraindik eta hamabost hiruhilekoz jarraian beraren jaitsiera iragarri dute. Oro har, langabeziaren bilakaeraz EAEko familien konfiantza indizea 2018an (+10) eta 2017an (+12) antzekoak izan ziren. Aipamen berezia merezi du aurrezteko ahalmenaz eman dituzten erantzunetan hauteman den aldaketa, lehenengo aldiz 2014an inkesta hau abiarazi zenetik balio positiboak (+3) jaso dituelako. Izan ere, laugarren hiruhilekoko emaitzak EAEko familiek aurrezteko aukeraz eman dituzten iritzien etengabeko hobekuntza finkatu du, enplegua suspertu den heinean eta familiaren diru sarrerak handitu diren neurrian. Hala eta guztiz ere, urte osoko batez bestekoan, balio negatiboa jaso da berriro (-5).

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2017	2018	2017			2018			
			II	III	IV	I	II	III	IV
EUSKADI	1	1	5	0,4	1	1	2	-0,5	3
Espainia *	-1	-3	2	0	-2	-2	1	-3	-7
Europar Batasuna *	-3	-1	-3	-2	-1	0	-1	-2	-3
Frantzia *	-6	-9	-5	-5	-6	-6	-7	-11	-14
Alemania *	3	4	4	4	6	7	6	4	4
Erresuma Batua *	-6	-5	-6	6	-6	-4	-5	-4	-6

Ingurune herrialdeekin alderatzen bada, EAEko perspektibak Europar Batasuneko batez bestekoarenak baino baikorragoak direla ondorioztatzen da. Alemania bakarrik dago EAEn gainetik, baina bi lurraldeen arteko tartea gero eta txikiagoa da. Ekonomia hazkundearen eta enplegu sorreraren igurikimenak hozten dituzten albisteak eta ezegonkortasun geopolitikoak (hauteskundeak, lan eta gizarte gatazkek, ...) Espainiako eta Europar Batasuneko kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntzarik eza ekarri dute.


Iturria: Laboral kutxa.

(*) 2018ko laugarren hiruhilekoko datua urri-azaroa bitarteko batez bestekoari dagokio.


INGURUNERAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

2019rako hazkunde aurreikuspenen bilakaera

Eurogunerako aurreikuspena
2019ko hazkundea




AEBetarako aurreikuspena
2019ko hazkundea




Nola aldatu dira 2019rako hazkunde aurreikuspenak urtean zehar? Consensus Forecastsek 2018ko hilabeteetan argitaratu duen informazioak bide ematen du ekonomia analisigileek 2019an munduko ekonomia nagusiek izango duten hazkundeaz egin dituzten berrikusketak zenbatesteko.

Nabarmendu beharreko lehen elementua da Eurogunerako eta AEBetarako aurreikuspenen zuzenketak bide ezberdinetatik joan direla. Lehen kasuan, 2018ko azken hiruhilekoan beheranzko hainbat zuzenketa kateatu ziren, AEBetan nolabaiteko egonkortasunari eutsi zaion bitartean, tartean gorakada iragankor bat dagoela. Abenduko panelak %1,6an eta %2,6an kokatu ditu, hurrenez hurren, Euroguneko eta AEBetako 2019ko hazkunde tasak.

Alemaniarako aurreikuspena
2019ko hazkundea




Frantziarako aurreikuspena
2019ko hazkundea



Euroguneko herrialdeen artean, beherazko zuzenketa handienak pairatu dituzten ekonomiak Italia, Alemania eta Frantzia dira. 2018ko azken hilekoetan, Italiak lau hamarrenetako jaitsiera izan du, Alemaniak, berriz, bi hamarrenetakoa eta Frantziak hamarren batekoa. Azken datuak zehazten du Italia 2019an %0,7 haziko dela, Alemania %1,5 eta Frantzia %1,6.


Italiarako aurreikuspena

2019ko hazkundea



Erresuma Baturako aurreikuspena

2019ko hazkundea




Erresuma Batuan, Brexitaren eraginak ziurgabetasun handia piztu du, baina hazkunde aurreikuspenek egonkortasun harrigarria islatu dute. Erakunde batzuek hazkunde tarteak kalkulatu dituzte eszenategi bakoitzaren arabera. Hala ere, Consensus Forecastsen panelen 2018ko urtarrilean %1,5eko hazkunde tasa jaso zen 2019rako eta bere horretan jarraitu du urte osoan zehar.

Espainia salbuespena da euroa bereganatu duten Europako herrialdeen artean. 2019rako aurreikuspenaren bilakaera egonkortzat jo daiteke eta 2018ko urrian hamarren bateko beherazko zuzenketa bat egin ondoren, %2,2an mantendu da. 2019an, oro har, beherazko arrisku garrantzitsuak daude munduko ekonomiarentzat. Haien artean, bereziki, merkataritza alorreko tentsioak eta Brexita nabarmentzen dira. Faktore horien eta beste batzuen eraginak hazkunde aurreikuspenen etorkizuneko zuzenketa markatuko dituzte.

Espainiarako aurreikuspena

2019ko hazkundea



EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			III	IV	I	II	III
BPG	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6
Familien kontsumoa	3,3	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,4	2,5	2,7	2,6	2,0	1,2
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,8	3,7	3,7	4,8	4,0
Barne eskaria	3,6	3,0	2,9	3,0	3,0	3,0	2,5
Esportazioak	1,8	4,7	5,6	6,8	6,7	2,9	2,2
Inportazioak	2,2	4,8	5,4	6,9	6,4	3,1	2,1
Lehen arloa	1,0	6,8	9,6	-2,7	-3,0	0,8	-4,6
Industria	4,2	3,1	3,0	3,5	3,7	3,1	1,9
Eraikuntza	0,2	3,8	4,7	4,0	2,7	4,1	4,8
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,7	3,1	2,8	2,7
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	2,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2019			2018	2019
	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,6	2,4	2,3	2,2	2,2	2,8	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,2	2,1	2,1	2,1	2,0	2,4	2,1
Familien kontsumoa	2,3	2,2	2,2	2,1	2,0	2,5	2,1
Administrazioaren kontsumoa	1,6	1,9	1,8	1,9	2,0	1,9	1,9
Kapital eraketa gordina	3,7	3,3	2,9	2,9	2,7	4,0	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,5	2,4	2,4	2,3	2,8	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	0,0	-0,1
Lehen arloa	-7,4	-7,0	-3,9	-8,0	8,3	-3,6	-2,6
Industria	2,3	2,5	2,3	2,1	2,0	2,8	2,2
Eraikuntza	3,2	2,9	2,1	1,9	1,7	3,7	2,1
Zerbitzuak	2,7	2,6	2,5	2,5	2,3	2,8	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,5	2,3	2,2	2,2	2,8	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,5	2,2	2,2	2,0	2,0	2,8	2,1
Enplegua	1,8	1,6	1,4	1,4	1,2	2,0	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
Funcas	3,3	2,7	BBVA	2,6	2,7
Confebask	2,9	2,5	CEPREDE	2,6	2,5
Laboral kutxa	2,8	2,4	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,5	2,1

Iturria: CEPREDE (2018ko azaroa), BBVA (2018ko azaroa), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,2	3,0	2,9	3,1	2,8	2,5	2,4
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,6	2,7	3,1	2,2	2,1
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	2,0	2,6	2,2	1,9	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,9	4,8	5,8	5,2	3,8	7,0	5,5
- Aktibo finko materialak	2,7	5,1	6,0	5,6	3,9	7,8	6,1
- Eraikuntzan	1,1	4,6	5,7	4,8	5,6	6,3	5,5
- Ekipamendu ondasunetan	5,2	6,0	6,4	6,7	1,6	10,0	7,0
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	3,5	4,5	3,1	2,9	2,5	1,8
Nazio eskaria (ekarpena)	2,4	2,9	3,2	3,3	3,1	3,1	2,8
Esportazioak	5,2	5,2	5,4	4,2	3,3	2,3	1,3
Inportazioak	2,9	5,6	7,0	5,4	4,4	4,6	2,5

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,6	2,3	Intermoney	2,5	2,2
Axesor	2,6	2,4	Repsol	2,5	2,1
BBVA	2,6	2,4	Santander	2,5	2,1
Bankia	2,7	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,5	2,2
CaixaBank	2,5	2,1	BATEZ BESTE	2,6	2,2
Cemex	2,5	2,3	Gobernua (2018-10)	2,6	2,3
CEEM-URJC	2,6	2,1	Espainiako Bankua (2018-12)	2,6	2,3
CEPREDE-UAM	2,6	2,3	Europar Batzordea (2018-11)	2,6	2,2
CEOE	2,6	2,3	NDF (2018-10)	2,7	2,2
FUNCAS	2,6	2,2	ELGE (2018-11)	2,6	2,2
ICAE-UCM	2,6	2,4	The Economist (2018-10)	2,7	2,2
IEE	2,6	2,2	Consensus Forecast (2018-11)	2,6	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
AEB	1,5	2,3	2,3	2,5	2,6	2,9	3,0
Txina	6,7	6,9	6,8	6,8	6,8	6,7	6,5
Japonia	0,9	1,7	2,2	2,4	1,2	1,4	0,1
Kanada	1,4	3,0	3,0	2,9	2,3	1,9	2,1
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,8	2,6	2,3	2,1	1,8
Eurogunea	1,9	2,4	2,8	2,7	2,4	2,2	1,6
Alemania	2,2	2,2	2,7	2,8	2,0	1,9	1,2
Frantzia	1,2	2,2	2,7	2,8	2,2	1,6	1,4
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,8	1,4	1,1	1,2	1,5
Italia	1,1	1,6	1,7	1,6	1,4	1,2	0,7
Herbehereak	2,2	2,9	3,0	3,1	3,1	2,9	2,3

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,6	2,4	2,1	3,9	3,5
Japonia	0,9	1,1	1,0	0,8	2,4	2,3
Kanada	2,1	1,9	2,3	1,9	5,8	5,8
Europar Batasuna	1,9	1,7	1,9	1,8	—	—
Eurogunea	1,9	1,6	1,8	1,6	8,2	7,8
Alemania	1,6	1,5	1,9	1,9	5,2	5,0
Frantzia	1,6	1,6	2,0	1,5	8,9	8,6
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,5	2,1	4,1	4,1
Italia	1,0	0,7	1,2	1,3	10,6	10,3
Espainia	2,6	2,2	1,8	1,5	—	—
Herbehereak	2,7	2,0	1,7	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.